

Ingurugiroa

EK-k hondakin toxikoen arazoa eztabaidatu zuen atzo Brusselen

DONOSTIA

Europako Komunitateko Ingurugiro ministroek hondakin toxikoen irteera, sarrera eta transferentzien kontrolaz hitzegin zuten atzo Brussel-en. 'Hamabien' ministro kontseiluak gai zerrenda luzea izan zuen Carlos Borrego ministro portugaldarren zuzendaritzapean. Hondakin toxikoez gain, ozono geruza baxeko neurriak ere izan ziren mintzagai.

Europako Elkartearen barruan izaten den hondakin toxikoen transferentzia begiratu eta kontrolatzeko arautegiaz akordiora irits litezke ingurugiro arduradunak. Hondar hauek Europako Komunitatearen esparruan izaten dituzten sarrera eta irteerei buruzko adostasuna lortzea izan zen bileraren beste helburuetako bat.

Europako Komunitateak 1990. urteko urrian proposatu zituen arauak hondakin arriskuak mugetan barrena izaten di-

tuzten mugimenduz urtebete lehenago Basel-en —Suitza— onetsitakoa berretsi zuten.

Aipaturiko gai honetaz gain, azufredun gasoilaz proposamenaz ere hitzegin zuten atzo Belgikako hiriburuan. Honi buruzko normak 1994eko urtarrilean jarriko lirake indarrean. Arauok diesel bezalako beste erregai batzuen arlora hedatuko lirake, 1996. urtetik aurrera. Guzti hau onartu ahal izateko egungo birfindegiak birmoldatu beharra dago zenbait estatuk eskatu duten bezala. Titanio dioxinotik eratorriak diren hondakinen poluzioa murrizteko moduak ere aipatu zituzten atzo Europako Komunitateko Ingurugiro ministroek. Carlos Ripa di Meana Ingurugiro komisariak agiri bat aurkeztu zuen Brusselen ozono geruzari kalte egiten dioten gas klorofluorokarbonatuak murrizteko proposamena zabaltzeko. Ripak gas hauek desagertarazteko epea askoz ere lehenago ezartzea nahi du.



Erregaiek hondakin arriskutsuak sortzen dituzte.

Zaborrari buruzko ihardunaldiak hasiko dira gaur Erreterian

DONOSTIA


Zaborrei buruzko ihardunaldiak hasiko dira gaur Erreterian —Gipuzkoa—, bertako Eki talde ekologistak antolatuta. «Zaborra gure bizimoduaren ispilu bihurtu zaigu, zaborra egin eta egiten segitzen dugu eta jokaera hau aldatu beharra daukagu edo bestela gureak egin du» Ekiko kideen iritziz.

Ekik zaborra birziklatzearen alde egiten du apostua, eta horregatik antolatuta dituzte ihardunaldiak. «Gure zaborraren irtenbide bat birziklapena da, zaborraren zer egin ez dakigunez gorde egiten bait dugu» zehaztu zuten. Ekik plazaratutako datuen arabera, 198.462.560 kilo zabor pilatu zen San Markosko zabortegian 1990. urteko uztailetik 1991. urteko uztaile arte.

Honek esan nahi du egunean 600 kilo zabor botatzen dela bertara. «Pertsona bakoitzeko 260 kilo zabor botatzen da eta Erreterian herriak bakarrik, 12.406.000 kilo zabor sortzen du» esan zuten.

Birziklapenaren bidez, poluzioa desagertu, energia aurreztu eta naturarekin ziklo orekatuagoa osatuko litzateke Ekiren ustet. Ihardunaldiotan zenbait hitzaldi izango dira. Gaur bertan zabortegia izango da mintzagai. Datorren asteartean Gipuzkoako zabortegiei buruz ihardungo dute. Apirilaren 1ean 'Zabortegiak, erazkailuak, birziklapena...' lempaen egingo da hitzaldia, eta azkenik apirilaren 14ean, birziklapena izango da eztabaidagai. Hitzaldi guztiak Erreterian Reina Aretoan egingo dira, arratsaldeko zazpi terdiateatik aurrera.

PELLO ZABALA



AITOR BAYO

Martxoak 23 betetzen dituen guztietan bezala, atzo ere ospatu zen Nazioarteko Meteorologia Eguna. 'Zerbitzu meteorologiko eta klimatikoak garapen eramankor batentzat' izan zen aurten gogoetarako proposatutako gaia. Honelakoak jorratzea 'xelebrekeriatzat' jotzen duen lagunik bada gure inguruan oraindik ere. Zerurantz begiratzeara aurrerapen teknologiko berrienak bezain fidagarria da gure eguraldi-gizonentzat.

«Artzainek darabiltzaten datu berberak erabiltzen dituzte gure meteorologoei»

JONE LARRANAGA / DONOSTIA

EGUNKARIA.— Zerura begira egiten diren iragarpenek ba al dute fidagarritasunik eguraldia asmatzeko teknologia berriak asmatu diren honetan?

PELLO ZABALA.— Hauei epe laburreko fidagarritasuna eskatzen zaie; etzi arteko epean asma dezakete bakarrik zein eguraldi egingo duen. Euskal Herrian izan dugun joera hori, lainoei begiratzeara... gauza berbera da azken finean. Euskal baserritarra ahalegindu da besteek teknologian bidez hartzen dituzten datuak bere gisara hartzen: hegazti hotsak nondik eta nola datozen entzunda, halako haizea izango dela asma daiteke. Gaur egun hegazkinek zeruan uzten duten lurrinak ere eman diezaguke eguraldiaren berri: arrastoa laburra bada

antizikloia datorren seinale.

EGUNKARIA.— Artzainek egiten dituzten iragarpenetan oso bereizgarria izan ohi da tenporak nola gelditzen diren ikus-tea. Nola neurtzen dira?

«Euskal baserritarra ahalegindu egin da besteek teknologiaren bidez hartzen dituzten datuak bere gisara hartzen».

ZABALA.— Haizea izaten da erreparatzen dena. Hiru hila-betetan zein izango den haize dominantea. Baina haizeak berdina izan arren, oso eguraldi desberdina izan daiteke. Aurtengoa dugu honen adibide garbiena: udazkenean eta ne-

guan jo duen haizea berdina izan arren, oso aro euritsua izan da bata, eta guztiz lehorra bestea. Hau asmatzea besterik ez zaie eskatu behar tenporei. Gaur egun zuku gehiegi atera nahi zaiela uste dut.


EGUNKARIA.— Azken urteotan eguraldian izaten ari diren aldaketak zerk sortarazten ditu?

ZABALA.— Eguraldiak gorabehera handiak izaten ditu. Bartzuetan, eguraldiak olatu handi baten itxura hartzen du eta azkenaldi honetan hala da. Orain dela bi urte negu guztiz lehorra izan zen. Iazko neguan eta udaberrian, berriz, euria ase arte izan ondoren, batera euririk gabeko uda etorri zen... Uhin baten antzera ibiltzen da eguraldia, eta horregatik iragarri liteke ur askoko udaberria izango dela aurtengoa.

SOSLAIA

Meteorologo eta fraide

Arantzazuko seminarioan eskola tarteak aprobetxatzen zituen Pellok bertako behatokian eguraldia artatu eta datuak hartzeko. Euskaraz mintzatzen zen eguraldi-gizon bakarra zela eta, Euskadi Irratitik hotsegiten zioten egunero eguraldi iragarpenetan has zedin. «Irratikoek behartuta hasi nintzen lan honetan, eta behin sartuz gero nire kontura ikasten aritu naiz», aitortu du. Asko dira ordudunik egunpasa mendira edo hondartzara joan aurretik Pello Zabalaren iragarpenaren zain egoten direnak.



AITOR BAYO